

Prest!



BERBETAN: **EGOITZ IZAGIRRE** GORA DEUSTUKO KIDEA

ERREPORTAJEA: **TURISMORAKO BIDEGURUTZEAN** **BARKUA: BILBOKO ASTE NAGUSIA BAKARRA MUNDUAN!**

6-257-258-259-260



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

Itsaso Larramendi Elexgaray - Nerea Cubillo Urkizu		Iritzia	4
María del Pico		Gurera etorriak	5
e erreportajea TURISMORAKO BIDE GURUTZEAN			
<i>Ibarrekolanda auzoa aldaketa handien aurrean dago, izan ere, Grupo Marjal alacantarrak bertako ur-depositu zahar bat pisu turistiko bihurtzeko asmoa agertu du.</i>			6
IKU IKU... Txantxiku!		Udalekuak	10
Deustuko azken alkateak (1912-1924)		Behin batean	12
EHPM-MPEHren ekimen berria: irailak 26, hel legebiltzarrera		Artikulua	14
b berbetan EGOITZ IZAGIRREekin			
<i>Pandemian sortu eta Deustuko Elkartasun Sarearekin ereindako indar komunitarioak auzo elkarte forma hartu du azken urteotako prozesuaren ostean.</i> <i>Deustuar guztiontzat bizi baldintza duinak (osasungintza publikoa, zaintza, argindarra, espazio publikoak...) aldarrikatzeaz gain, Deustugintza izendatu duten lan ildoan martxan dute, Deustuko elkarte ezberdinen artean elkarlanean egitasmoak antolatuzko. Horren adibide urriaren 26an Deustuko II. KM Bertikala.</i>			16
Deustuko anexioa (1905)		Irudiak berbetan	21
HEZKUNTZA EZ FORMALA Arnasgune uharteak, udalekuak			
BILBOKO ASTE NAGUSIA Bakarra munduan!			
NUTRIZIOA Deustuko kilometro bertikalerako nutrizio-gomendioak			
KULTUR TXOTX Jon Intxaurrea eta Maite Sarasola			
		barkua bete herba	24

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Katalin Gaztelu

Eredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrea

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura, Jon Intxaurrea

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu

Diseinua: BO5T

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01



Itsaso Larramendi Elexgaray

Hiriaz eta beste

Muga soinean

Irailaren erdialdean Ceutako muga gurutzatzeko saiakera antolatua egin dute hainbat gaztek. Ehundaka izan dira Tarajaleko igarobidetik Europara sartzen saiatu direnak; mendian behera gehienak, uretatik ugerrean gutxi batzuk. Antza denez, poliziaren esku-hartzea medio, batek ere ez du muga gurutzatzea lortu.

Mugaren arkitekturari jarri nahi diot arreta, Europa iragazgaitz mantentzeko sortutako sistemen materialtasunari. 70eko hamarkadan metro eskas batera kokatuta zeuden bi hesik osatzen zuten muga, 60 zentimetroko altueradunak eta arantzadun alanbrezkoak. Orduetik hona mugaren arkitekturak izan duen eraldaketa azaltzeko bi kontzeptu baliatzen ditu Antonio Giraldezek: lurralde-sakabanaketa eta operatibitatea.

Espazioan zehar barreiatuta dauden arkitektura ezberdinek modu bateratuan funtzionatzen dute mugaren efizientzia bermatzeko: bideobigilantzia sistemak kontrolatzeko bulegoak, itsas-patruien abiapuntu diren portuak, Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak (CIEak), hesiak eta bestelako material erasokorrak. Baina arkitektura horien funtzionamendua operatibo ezberdinek osagarritzen dute: legea bertan-behera uztea ahalbidetzen duten salbuespen egoera deklaratuak, protokolo eta esku-hartze polizialek, mugan bertan burutzen diren kanporatzeak.

Muga hesi bat baino gehiago dela azaldu behar digute atea zabalik ditugunoi; eta gorputzetan itsatsita geratzen dela, atxilotua eta deportatua izateko beldur etengabea, munduko toki pribilegiatuenetan izate hutsak dakarren segurtasun falta iraunkor horretan.



Nerea Cubillo Urkizu

Zergatik onartu ezarri dutena?



Osasunarekin ez da jolasten!

Joan den astean aitona ospitalera eramateko anbulantzia eskatu zuen zahar-egoitzako erizainak arratsaldeko sei eta erdietan, eta gaueko bederatzia eta erdietan etorri zen bere bila.

Ez naiz osasun-langilea, baina imajinatzen dut ez dela ohikoena anbulantzia batek hiru ordu behar izatea hamar egun ospitalean ingratuta eman berri dituen eta kalentura handia duen 90 urteko pertsona baten bila etortzeko.

“Han tardado 15 minutos en cogerme el teléfono en emergencias!” aipatu zuen erizainak haserre. Ahizpa eta biok ospitalera eramateko poltsa prestatzen ari ginen bitartean,

aitona bera ere anbulantzian eramateko prestatzen ari ziren zahar-egoitzako langileak, izarak aldatu, garbitu... Aitonaren gauzak arin biltzen ari ginela iruditu omen zitzaion haietako bati, eta ez zuen zalantzarik izan: *“no tengais prisa, hasta que llegue la ambulancia...”*.

Harritzen nau itxaronaldiak, baina gehiago harritzen nau horrelako egoeretara ohituta egoteak. Osagungintza gero eta gehiago pribatizatzen ari diren honetan uda bereziki larria igaro berri dute emergentziak zerbitzuaren beharra izan duten herritarrek, baita bertako langileek. Osasunarekin ez da jolasten!



Maria del Pico

Adina: 22 urte
Jatorria: Burgostarra
Bizitokia: Deustu
Lanbidea: ikaslea



Zerk ekarri zintuen Desutura eta noiz?

Bilbora 2020an iritsi nintzen, baina ez nintzen Deustun bizitzen hasi 2023ra arte, eremu on batean eta prezio eskuragarriaren partekatzeke etxebizitza bat aurkitu nuenerarte.

Zerk harritu zintuen gehien iritsi zinenean?

Gehien harritu ninduen denetarako irisgarritasun erraza izan zen. Era guztietako zerbitzuak ditu (supermerkatuak, ambulatorioa, tokiko saltokiak...). Ez duzu bi kale baino gehiago zeharkatu behar ezer aurkitzeko. Era berean, harritu ninduen beti mugimendua dagoen auzoa dela; jendea irtetzea eta bizitza egitea gustatzen zaio.

Orduan, zerbait ezagutzen zenuen zonaldeaz edo gure kulturaz etorri aurretik?

Ingurua ezagutzen nuen, baina gehiago lotzen nuen unibertsitatearekin. Unibertsitario asko bizi dira, baina errealitatea da auzoan adin eta bizi guztiko jendea dagoela. Niri hori asko gustatzen zait, beti daudelako gauzak eta ekitaldiak. Politza da auzoak bizitza izatea.

Zeintzuk dira Burgosen eta Euskal Herriaren artean somatu dituzun antzekotasun eta desberdintasunak ?

Ezberdintasun nagusia jendea da. Hemen sentitzen dut bizitza handia egiten dela ostegunetan, larunbatetan edo igandeetan bermutean. Jendea irtetzea eta bizitza egitea gustatzen zaiola sentitzen dut, oso animatua da, eta beti dago mugimendua tabernetan.

Nire ustez antzekotasuna lasaitasuna da. Mugimendua bada ere, auzoko jendearena da. Ez da turista eta zarata gehien dagoen San Mamesen bizitza bezala. Eremu lasaia eta seguru da.

Nolakoa izan da euskal gizartearen integratzeko prozesua?

Nik ez dut arazorik izan. Ezagutzen dudana jende asko hemen bizi da, eta lehen unetik gustura egon nintzen. Kulturalki eta sozialki, nondik natorren oso antzekoa dela nabaritzen dut.

Zer harreman duzu euskararekin?

Iruditzen zait Euskal Herriak, oro har, kultura oso aberatsa duela, eta euskara hizkuntza ederra iruditzen zait. Niri pixka bat kostatzen zait, eta epe lu-

zera hemen geratzen banaiz, logikoa ikusten dut ikastea. Momentuz oinarrizko hitzak dira, lagunei galdetu nahi diet ea badakiten, eta taberna batean adibidez eskatzen dudanean aplikatzea gustatzen zait. Egia da, halaber, orain arte ez dudala inoiz horren beharrik izan, eta ez dudalako arazorik izan ez dakidalako.

Zer duzu faltan?

Pentsatzen dut lagunaren edo familiaren falta sumatzen dela beti, baina bizitzeko tokia dena: ez. Deustun pozik nago eta dena dut eskura.

Zenbatero egiten duzu buelta etxera?

Hilean asteburu batez itzultzen naiz. Azkenean, bost urte daromatza hemen, eta nire bizitza egin dut; beraz, asteburuetarako ere planak sortzen dira hemen.

Gomendatuko zenioke Deustu zure hiriko norbaiti?

Beti esaten dut Deustu bizitzeko zoragarria dela baina, azkenean, hori bakoitzaren esku dago eta are gehiago orain, lana edo pisua aurkitzea zein zaila den kontuan hartuta.



TURISMORAKO BIDEGURUTZEAN

Ibarrekolanda auzoa aldaketa handien aurrean dago, izan ere, Grupo Marjal alacantarrak bertako ur-depositu zahar bat pisu turistiko bihurtzeko asmoa agertu du. Proiektu honen baitan, 62 apartamentu eraikitzea proposatzen dute, metro geltokiaren eta Ertzaintzaren komisariaren ondoan kokatuko liratekeenak.

Etxebizitza turistikoek geroz eta presentzia handiagoa dute hirietan, eta Ibarrekolanda bezalako auzoetan ere eragin nabarmenak izan dezakete bertako bizilagunen egunerokoan. Egitasmo honek, zalantzarik gabe, eztabaida piztuko du auzoko garapenaren inguruan, eta horrekin batera, turismoaren eta bizilagunen arteko elkarbizitzaren erronkak mahai gainean jarriko ditu.

Testua eta argazkiak: PREST! aldizkaria

Ibarrekolanda turismoaren epizentro berria?

Ibarrekolandako azken albisteak kezkak piztu ditu auzoan. Marjal taldearen proiektuak 62 etxebizitza turistiko sortu ditu, eta horrek berebiziko inpaktua izan du bertako alokairuen merkatuan. Proiektuaren helburua estudioak turismo alokairu bihurtzea da, eta horrek etxebizitza irigarriak eskuratzeko arazoak areagotuko dituela uste da.

Ibarrekolandako Suez Treatment Solutions erakina, Marjal taldeak 62 estudio turistiko inaugu-

ratzeko eraldatu nahi duen espazioa, etxebizitza turistikoaren hazkundearen ikur berria bihurtu da Bilbon.

Bilboko Udalarari obra-baimena eskatu eta proiektua errealitate bihurtu den honetan, auzoko paisaian aldaketa nabarmenak ekarriko ditu.

Fenomeno honek, hala ere, kezkak pizten ditu Deustuko auzotarren artean, etxebizitza turistikoaren hazkundeak alokairuaren prezioetan eta auzoaren biztanle-komunitatean duen eraginagatik.



Bilboko Aste Nagusi honetan, nagusiki, etxebizitza turistikoek lotutako salaketaz bete dute Kranbaren gunea eta txosna. Bilbon legez kanpoko 749 etxebizitza turistiko daudela ohartarazi dute konpartsen aldarrikapenen bidez; eta, salaketa horri lotuta, ondoko aldarria ere irakur zitekeen Kranbaren txosnan, letra larriz: Etxebizitza turistikoak okupatu.

Etxebizitza turistikoen gorakada hiri asko-

tan nabaria da, baina Bilbon bereziki larria da egoera. EAEko etxebizitza turistikoen kopurua lau urtean %75,32 hazi da, eta Bilboko hiria da eskaria gehien areagotzen den lekua. Turismoaren sektorea pandemiak eragindako krisitik indarberritu da, eta horren ondorioz, eskariaren gorakada ikusgarria izan da, batez ere hotelez kanpoko ostatuetan. INEren datuen arabera, Bilbon esandako kokapenetan igarotako gauak %35 igo dira urtebetean.





Deustu, lehenago gazte eta ikasleentzako aukera erakargarria zen alokairu prezioen-gatik baina gentrifikazio prozesuaren ondorioz aldatzen ari da. Eusko Jaurlaritzaren azken datuen arabera, alokairuen batz besteko prezioa 864 eurokoa da, baina benetako merkatuan, metro karratuko prezioa 13.5 eurok ingurukoa izatera iritsi da, Etxebizitza turistikoen hazkundea, neurri handi batean, prezio hauen gorakadaren erantzule da eta proiektu berri honek auzoaren dinamiko hori are gehiago azkartu dezake. Deustuko bizilagunek, gazteek eta ikasleek etxebizitzaren eskuragarritasunari buruzko kezka handia adierazi dute, etxebizitzaren prezioak eta alokairuen irabaziak handitzen doazen heinean. Bilboko alokairu turistikoen hazkundeak ere aurreko arauak hiriarri bizilagunen eguneroko bizitzan eragina izan dute, eta horrek etxebizitza prezioen igoera ekarri du.

Azkenik, ondorio gisa, baina baita hausnarketa gisa ere, ekologistek honako galdera hau planteatzen dute: Burbuila turistikoko baten leherketarantz goaz? Travelzooeren (2024) joeren azterketaren aurkezpenean, Stephan Keschelis Espainiarako eta Frantziarako zuzendari nagusiak adierazi zuen, bere ustez, "sektore turistikokoan burbuila bat sortzen ari da, eta burbuilak eztanda egin-





go du, kontsumitzailearen eskariz, baina ez da aurten izango”. Bestalde, Ekologistak Martxan-ek argi dauka “lan-kalitate txikia duen turismoan oinarritutako eredu bat izatea, hiriaren garapen urbanistiko eta sozioekonomikoaren ardatz garrantzitsu gisa (ez da sektore bakarra), azkenean lehertu egin daiteke, aurretik dibertsifikazio-prozesu batean sartzen ez bagara”. Irtenbide gisa, Ekologistak Martxan-ek uste du jarduteko modua “pisu turistikoak pixkanaka ezabatzeraz (jarduera ekonomiko gisa) eta turismoa ostatu-eredu klasikoetara desbideratzea” litzatekeela, “hiriaren karga-ahalmena kalkulatu ondoren”.





IKU IKU, TXANTXIKU!

Aurten ere, Txantxikukideok udalekuetan joan gara. Uztailaren 15ean, errutina apurtu, familiak agurtu, maletak hartu eta Ezkabara abiatu ginen. Nork esango luke kanping lehor eta bero bat, bihurrikeriekin eta euskararekin ureztatuko genuela.



Erlojuak kendu genituen, denbora makina izan genuen kide, eta bide. Bertan sartu eta etorkizunean zein iraganean bidaiatzera ausartu ginen. Olinpiadekin hasi genituen udalekuak, gogo handiz eta dena emateko prest. Egunak pasa eta Ezkabako kartzelara igo ginen, pausoz pauso herri aske baten alde eginez. Nahiz eta nekatuta itzuli, bihurrikeriz beteriko uholde baten antzera dena hankaz gora jarri genuen, alderantzizko eguna eta txerrikeri eguna zain baigenituen. Ezin garanez geldirik egon, Atarrabia eta Irunara abordatzera abiatu ginen, pirata eroek egiten duten bezala.

Kontatuko ez dugunik ere badago, nagusien ibilaldian galdu ginenekoa, denbora makina apurtua, sortutako uholdeak... Baina gure artean geratuko diren sekretuak dira, edo ez?

Ezkaba 2024, hau bai izan dela erronka. Elkarren artean zaintzeko, euskaraz bititzeko, dantzatzeko eta gozatzeko aukera ezin hobea izan dugu! Nafarroatik lotsak galtzen eta bihurriak izaten gozatu dugu! Jarrai dezagun gu geu garena izaten eta mundua bukatzen bada....ke nos pille bailando!



DEUSTUKO AZKEN ALKATEAK (1912-1924)

Laster izango dira ehun urte Deustu udalerrri gisa desagerrarazi zutenetik. Diktadura batek agindu zuen, deustuarren borondatearen kontra. Testu honetan herriko azken alkateak ekarriko ditugu gomutara, baita txapelokerren bat edo beste ere.



Agirre familia. Txema Luzuriagaren bilduma.

Testua: Hektor Ortega

Aldizkari honetan aipatu izan dugun alkate batekin hasiko gara: Pedro Urreta Izagirre. 1912ko urtarrilaren 5eko udal bilkura osoan hautatu zuten alkate, zalaparta ikaragarri baten erdian. Izan ere, jauntxoan alderdia lehenengoz gutxiengoan gelditu zen 1911ko azaroko hauteskundeetan, bost zinegotzirekin. Aurrean bost jeltzale eta errepublikazale bat zeuzkaten. Baina, jauntxoak beti jauntxo, Pedro Urreta abertzalea euren lerroetara ekarri zuten abilezia handiz. Alegia, alkate jartzearen truke. Eta zurrumurruean arabera, lau mila pezetaren truke. Ikus PREST! 155 eta 156.

Kontua da Pedro Urreta 1913ko irailaren hasieran gaixotu egin zela eta hilaren 26an hil egin zen. Deustuko Udalak egin horretan bertan egin zuen osoko bilkura doluminak agertzeko eta bere alde-

ko ekitaldiak prestatzeko. Urriaren 1ean Luis Kortadi Mazo sartu zen alkate, azken hauteskundeetan boz gehien jaso zuen hautagaia. Jauntxoek alkatetzari eutsi zioten, beraz, baina hurrengo bozketak ate joka zeuden.

Izan ere, sasoi hartan udal hauteskundeak bi urtetan behin egiten ziren udal kargudunen erdia berritzeko. Gomutara ekarriko dugu hauteskunde haiek ez zirela oso demokratikoak: emakumeek ezin zuten bozik eman, jauntxokeria eta iruzurra nagusi ziren... Eta, hala ere, 1913ko hauteskundeak ere ez ziren jauntxoan alde atera. 1914ko urtarrilaren 1ean Deustuk alkate berria izendatu zuen: jeltzaleek babestutako Benito Santamarina Zarate. Zazpi boz jaso zuen udal bilkura osoan. Luis Kortadik, berriz, bost.

Harrez gero, abertzaleak izan ziren nagusi Deustuko Udalean. Jauntxoan alderdiari gailendu zitzaizkion. Santamarina lau urtez izan zen alkate eta ondoren, 1918ko urtarrilean, Eugenio Olabarrieta Artetak hartu zion lekukoa. Alkatearen lehenengo ekimena esanguratsua izan zen, oso. Deklarazio politikoa proposatu zuen udalbatza berriaren lehenengo ebazpen gisa: protesta egitea “1839ko urriaren 25eko espainiar legearen aurka, zeinak, zitalki eta indarraren indarrez, bere jatorrizko askatasuna kendu zion Hego Euskal Herriari”. Protesta bereziki zuzendu zuen 1841ko urriaren 29ko errege-dekretuaren aurka, udalak Espainiako legeen arabera antolatu behar zirela agindu zuelako. Harrigarria bada ere, Deustuko Udalak aho batez onartu zuen Olabarrieta alkate berriaren proposamena.

Udalbatza hartan Eliodoro de la Torre (1889-1946) zegoen zinegotzi. Urte batzuk geroago, lehenengo Eusko Jaurlaritzan Ogasun eta Osasun sailburua izan zen, Jose Antonio Agirre lehendakariaren aginduetara.

Garai hartako beste kargudun batek hartu zion lekukoa Olabarrietari 1920ko apirilean: Jose Gordon Aranburu. Gordonek hiru urte luze egin zituen alkate. Bera izan zen hauteskunderen bidez izendatutako azken alkatea.

Txapelokerrak udaletxean

Izan ere, abertzaleen nagusitasuna hauteskunderen zor zitzaien, baina 1923ko irailaren 13an Miguel Primo de Rivera jeneralak estatu-kolpea jo zuen Espainian eta diktadura ezarri zuen. Alegia, akabo

hauteskundeak. Aurrerantzean, udal kargudunak ez zituzten herritar gizonezkoek hautatuko, gutxi batzuek izendatuko zituzten. Olabarrieta alkateak bultzatutako 1918ko deklarazio politikoa hura inoiz baino egiazkoagoa zen.

Urriaren 1eko arratsaldean Jose Gordon eta gainerako udal kargudunak Deustuko Udaletxean azaldu ziren. Zain zeukaten Guillermo Aizpuru, Guardia Zibileko kasernako komandantea. Txapeloker bi gehiago alboan zituela, jakinarazi zien irailaren 30eko errege-dekretuaren ondorioz kargugabetuta zeudela. Gordon alkateak eta zinegotziek Aizpuru komandanteari eman zizkioten Deustuko aginte makilak. Jarraian, gizon multzo bat batu zen udaletxean, “señores vocales asociados” izenekoak, “bajo la presidencia del señor comandante jefe del puesto de la Guardia Civil” alkate berria izendatzeko. Gizon haiek Juan Jose Usparitxa Torre jarri zuten alkate.

Ez zuen luzaroan jardun. 1924ko martxoaren 21ean gizon multzo bat bildu zen Deustuko udaletxean, Luis Arguijo Espainiako Armadako komandantea buru zutela. Horiek alkate berria jarri zuten: Cirilo Vallejo Rodríguez. Baina alkatetza hartu eta alkatetza utzi, ia batera egin zuen Vallejok, hurrengo PREST!en jorratuko dugun pasarte baten ondorioz. Diktadura garaia zen, eta anexionaren gaia pil-pil zegoen. Apirilaren 5ean Marcos Orueta Lekanda zegoen alkate. Hura izan zen Deustuko azken alkatea eta, diktadurak izendatu bazuen ere, Deustu buru eta bihotz defendatu zuen udal-erri gisa iraun zezan.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



Testua: Hmndk etxera



Lau neska gazte, umetatik lagun, betidanik dantzan eta ondo pasatzeko gogoz beteta... Geu gara HMNDK ETXERA! (Hemendik etxera).

Gure izena ezaguna egingo zaizue, gure lagun taldea beti izan baita Hemendik at! Taldearen jarraitzaile sutsua eta haien omenez eta mimo handiz jarri genion HMNDK ETXERA! izena proiektu txiki honi. Hau guztia Agurainetik heldu zitzaigun proposamen zoro batekin hasi zen: bertako txosnagunea gure playlist eta dantzekin animatzea. Hau da, juergan irtetzen ginen bakoitzean egiten genituen koreografia eta dantza inprobisatuak, eszenatoki baten gainean egitea. Eta horrela hasi zen gure ibilbidea... Deustutik abiatu eta Agurainera bidean jarri ginen gure betiko lagunez inguratuta, urduritasunez eta ondo pasatzeko gogoekin lehenengo aldiz eszenatokira igo ginen egun horretan.

Hasieratik gure izaera azpimarratuko zuen ikurren bat gure parte egin nahi eta horrexegatik erabaki genuen leopardo jantzia bihurtzea gure ikurra. Horregatik, jantzian ez ezik, Maialenek sortutako logoan ere leopardo esentzia daramagu.

Nahiz eta DJak ez izan (musika nahasketarik egiten ez dugulako), dantza, euskal musika eta jatorri eta estilo ezberdineko musika uztartuz Euskal Herriko txosnagune, gaztetxe eta jai herrikoiak animatzen saiatzen gara, gurekin dantzatzeko prest dauden pertsonen bila...

Agurainen hasi zen gure bidaia, baina proiektu hau ez zen bertan amaitu. Euskal Herriko herri gehiagotan egon gara: etxean Deustuko MAMBO egunean eta Inauterietan, berriz ere Agurainen, Amurrioko gaztetxean, Deustuko Erriberako jaietan, Algortako Portu Zaharrekoetan, Bilboko Aste Nagusian, Lekittoko San Antolinetan... Gogotsu gaude oraindik ere antolakuntzaz sortutako jai eta egitasmoetan gure aletxoak jartzeko eta hauei bultzada bat emateko.

Behin uda amaituta, Bilbo dantzan jarriko dugu berriz ere! Irailaren 26an Errondabiden, Ernaiko gazteen kontrako isunak salatzen ospatuko den jaietan eta urriaren 26an Gora Deustu plataformak antolatutako "Gora Deustu Herria!" egitasmoan gure ekarpena jarriko dugu!

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizuegu urte luze honetan proiektu zoro honetan babestu gaituzuen guztioi, "Bolo" bakoitzaren amaieran beti jaso izan baitugu publikoaren berotasun eta erantzun ona. Guk naturaltasunez eta ondo pasatzeko egiten dugun honek horrelako harrera izatea asko eskertzen dugu. Denbora aurrera doa, plaza askotan egon izan gara urte honetan zehar, eta beste hainbeste falta zazikigu oraindik zuekin betetzeko!

Herriko festetan eta plazetan ikusiko dugu elkar, dantzatzen duen herria ez delako inoiz hilko!



EHPM-MPEHREN EKIMEN BERRIA: IRAILAK 26, HEL LEGEBILTZARRERA

Testua: EHPM-MPEH

Irailaren 3an Gasteizen egindako EHPM-MPEH koordinazio-bileran erabaki genuen EAeko Legebiltzarrean Legegintzako Herri Ekimen bat aurkeztea, gutxieneko pentsioak osatzea lortzeko, Europako gizarte-kartan ezarritako diru-sarreraren nahikotasunaren irizpidea (batez besteko soldataren % 60) aplikatzearen ondoriozko LGSarekin parekatu arte. Legebiltzarrean izapidetzea espero dugun ekimen honekin, legebiltzar-taldeei eskatzen diegu eztabaidatu ondoren pentsiodunen eskarien mailan egon daitezela eta guk jendartean eskatutako proposamena onar dezatela.

Sei urte baino gehiago daramatzagu hori eskatzen gure mobilizazioetan, 150 udalen babesia jaso dugu aurkeztu ditugun mozioak onartuz, eta iritsi da unea legebiltzarrean dauden alderdi politiko guztiek pauso bat aurrera eman eta hitzetatik ekintzetera pasatzeko. HELren proposamena argia bezain ezinbestekoa da.

Pentsiodunek, gizonek eta emakumeek, lanean urte asko eman ondoren, bizi-baldintza duinak lortzeko adina diru-sarrera jasotzeko eskubidea dugu. Gutxieneko pentsio bat eskatzen dugu, pentsiodunei EGSren irizpideen arabera ezarritako LGSren pareko diru-sarrerak bermatzeko. Helburu hori lortu bitartean, gutxieneko pentsioak gure pentsiodun izaerarekin bat datorren EAeko aurrekontuen bidez osatzea eskatzen dugu. Beraz, prestazio horrek ezaugarri propioak ditu.

HELarekin eskatzen dugun osagarria egiturazkoa da, ez da osagarri puntuala edo aldi baterakoa. Pentsiodunaren eskubidea da, bizikidetzta-unitatearen diru-sarrerak mugatzen ez dutena. Osagarri horrek ez du lan egiteko ezinduta dagoen pentsioduna kanpoan uzten, ezta kotizaziopeko eta kotizazio gabeko pentsioa jasotzen duen pentsioduna ere. Osagarri horrek genero-arrakala murrizten laguntzen du, bertan sartzen baitira pentsioa eskuratzeko garaian ugalketa- eta zaintza-lanetan lan egindako urteak aitortuta ez dituzten emakumeak.



EAeko Legebiltzarrean HEL hori onar dadin lortzea, neurri handi batean, gure mobilizazio-gaitasunaren mende dago; horrela, neurri atzerakoiak indargabetzea lortu dugu, hala nola pentsioen errebalorizazioa edo jasangarritasun-faktorea. Eta horrela, zalantzarik gabe, pentsiodunek bizi-baldintza duinak lortzeko arazorik ez izatea lortuko dugu, beharrezko diru-sarrerarik ez dutelako. Adinekoak zaintzeko gai ez den gizartea ez da herrialde bidezkoa, bidezkoa eta solidarioa.


Pentsiodun, langile eta herritar guztiei dei egiten diegu helburu horrekin inplikatzeko. Jende gazteari berariazko deia egiten diegu, batzuetan itxaropena galdu dutela ematen baitu egunen batean pentsio duina eskuratu dutenik. Oraitxe da lortzeko unea.

berbetan

EGOITZ IZAGIRREekin

GORA DEUSTUKO KIDEA

“Herrian egotea eta bizitza



Pandemian sortu eta Deustuko Elkartasun Sarearekin ereindako indar komunitarioak auzo elkarte forma hartu du azken urteotako prozesuaren ostean.

Deustuar guztiontzat bizi baldintza duinak (osasungintza publikoa, zaintza, argindarra, espazio publikoak...) aldarrikatzeaz gain, Deustugintza izendatu duten lan ildoak martxan dute, Deustuko elkarte ezberdinen artean elkarlanean egitasmoak antolatzeko. Horren adibide urriaren 26an Deustuko II. KM Bertikala.

herrian egitea ezinbestekoa da”

Nola eta zergatik sortu zen Gora Deustu elkarteak? Zein izan zen hasierako motibazioa eta helburu nagusia?

Gora Deustu pandemia garaian jaio zen. Berez, hasierako izena Deustuko Elkartasun Sarea zen, bertan hainbat pertsona elkartu ginen pandemiak eragin izan zituena arazo sozialei aurre egiteko asmoz. Ondoren, pandemiaren garai zailenak pasatu ostean, birformulazio prozesu bat egin genuen eta ikuspegi eta helburuak handitu genituen. Momentu horretan taldea osatzen genuen kideak, Deustun auzo/herri mugimendu baten beharra identifikatu genuen eta, ondorioz, modu aktiboan eta arlo desberdinetan (auzolanean eta eskubide sozialen defentsan, osasungintza jomuga berezi bezala momentu horretan) lanean jarri ginen.

Zer helburu ditu “Gora Deustu Herria” kanpainak? Nola definituko zenituzke kanpainaren bi helburu nagusiak?

Aurten, 100 urte beteko dira Deustu Bilbora anexionatu zenetik eta data sinboliko/esanguratsu honen aitzakian Deustuko herritarrak gonbidatu genituen bilera ireki batetara. Bertatik sortu zen “Gora Deustu Herria” lelopean egiten ari garen inizatibean lan-taldea. Kanpaina honek Deustuko nortasuna azaleratzeko modu bat da. Gure leloa “100 urte eta gero... Gora Deustu Herria” da, honekin adierazi

nahi duguna da, bai, 100 urte pasa dira anexioa eman zenetik, baina herri hau ez da desagertu eta sentimendua bizirik mantentzen da.

Zeintzuk izango dira kanpainaren puntu garrantzitsuenak edo ekitaldi nagusiak? Zer espero duzue ekitaldi hauetatik?

Bestetik, kanpaina honetan elkartearen filosofia nagusietako bat betetzea dugu helburu: komunitatea sortu eta landu. Urtean zehar dinamika desberdinak lantzen ari gara eta deustuar guztiengana heltzeko nahia dugu. Horretarako, ekitaldi desberdinak egin ditugu, horren adibide dira maiatzean egindako Deustuko mugarrin ibilbidea edo Deustuko banderen salmenta, besteak beste.

Urrira begira beste ekimen batzuk prestatu ditugu: urriak 20 Begoñako auzokideekin elkarretaratzea La Salve zubian edo urriak 23 mahai-inguru bat Bidarten, non zenbait adituk Deustuko historiaren inguruan hitz egingo duten. Hala ere, gure egunik garrantzitsuenak urriak 26 izango da. Egun horretarako hainbat ekimen antolatu ditugu: goizean Deustuko II. KM Bertikala eta erromeria (Bihotz Alaik girotua), ostean herri bazkaria eta arratsaldean zehar hainbat kontzertu. Jai egun ederra izatea espero dugu.

“100 urte pasa dira anexioa eman zenetik, baina herri hau ez da desagertu eta sentimendua bizirik mantentzen da”



berbetan

EGOITZ IZAGIRREekin

▷ ▷ SAKONEAN


“Antolakuntzan ibiltzen direnei eskerrak eman nahi dizkiegu”

Anexioaren 100 urte hauetan, nola eutsi dio Deustuk bere identitateari eta herri izaerari? Zein izan dira , zure ustez, erreibindikazio nabarmenak?

Anexioaren 100 urte hauetan, Deustuk bere identitateari eta herri izaerari eusteko lan handia egin du. Lehenik eta behin, kultur ekintzak eta tradizioak babestuz eta sustatuz, herriaren izaera eta historia transmititzen laguntzen dute. Bestalde, komunitateak elkartasunaren eta parte-hartzearen balioak indartzen ditu, hala nola auzolanak eta elkarlanak, hori guztia Deusturen irudi kolektiboaren parte da.

Zer esan nahi du Deustuarra izateak gaur egun? Zein balio edo ezaugarri azpimarratuko zenituzke Deustuko komunitateari dagokionez?

Lehenik eta behin, konpromiso sendoa eta identitate partekatatu bat azpimarratuko nituzke, baita aniztasunaren eta inklusioaren balioa ere. Giroa sortzen duten ekimenek (Deustuko Jaiak, Inauteriak edo Udako solstizioak besteak beste) ezinbesteko onura egiten diote herriari. Beraz, antolakuntzan ibiltzen diren pertsoneri eskerrak eman nahi dizkiegu.



Zergatik da garrantzitsua Deustuk Udala zueneko herriaren memoria historikoa lantzea eta ezagutzera ematea? Zer irakaspen atera daitezke garai hartatik gaur egungo auzoarentzat?

Zure herriaren historia eta, orokorrean, historia ezagutzeak ikuspegia zabaltzen dizulako. Gaur eguna ulertzeko atzera begiratzea ezinbestekoa da, bertan azaltzen baita jendearen izaera eta herriak izandako ibilbidea. Gainera, jende nagusiagoarekin hitz egitea polita da, haiek kontatzea ze Deustu ezagutu zuten, “Tomateros” deitzearen arrazoia edo udaletxea nun zegoen jakitea. Horren harira, Deustuko Jaietan ekimen berezi bat egin genuen, 100 urtetik gora duten Deustuarrei oroigarri bat emanez.

Zeintzuk dira memoria historikoa lantzeko erabiliko dituzten tresna eta proiektuak? Liburuak, erakusketak, ibilbide antzeztuak... gehiago ere espero ahal dira?

Esan bezala, urriak 23 Deustuko historiaren inguruko mahai-inguru bat egingo dugu. Horrez gain, Pedro Zuberogoi-tiak, alde batetik, eta Hector Ortega eta Txema Luzuriagak, bestetik, Deusturen inguruko liburu bana aurkeztuko dute.



Nola sortu zen Deustuko I. Kilometro Bertikala antolatzekeo ideia? Nolako izan zen esperimentzia eta zer erantzun izan zuen ekimenak?

Idea hau Gaizka Suarezena da. Bileretan askotan botatzen zuen ideia eta egun baten aurrera eramateko erabakia hartu genuen. Egia esan, hau aurrera ateratzeko lan handia egin behar izan genuen, bai gure ezjakintasanagatik zein esku faltagatik. Hala ere, oso balorazio positiboa egiten dugu, egunean zehar sentazio oso ona izan genuelako eta, batez ere, bertan parte hartu zutenek horrela helarazi zigutelako.

Aurtengoari begira ze aurreikusten duzu? Ze garrantzi izango du Deustuaren artean?

Pasadan urtean, igandean izan zen eta ekimen isolatua izan zen. Aurten, larunbatean izango da, urriak 26ko jaialdi nagusiaren egitarauaren parte izango baita. Gure helburua pasadan urteko maila mantentzea da eta, ahal izanez gero, parte-hartzea handitzea.

Beste ekimen arrakastatsuren bat dago aurreikusita Deustu sustatzeko?

Baditugu beste ideia batzuk, baina momentuz hauek eramango ditu aurrera.

Nire iritziz, gure erronka nagusiak bi izan behar dira: lehenengoa, Deustuko pertsona eta espazioen beharrak identifikatu eta

hauen defentsan aritzea; bigarrena, egiten ditugun ekintza eta jarduerak indartu, Deustuko sektore eta adin desberdinetako jendea erakarri.

Zeintzuk dira Gora Deustu elkartearen hurrengo pauso eta erronkak? Zer norabide hartzea gustatuko litzaizueke aurrerantzean?


Laster, 2024ko urtearen balorazioa egingo dugu eta ateratzen ditugun ondorioekin pauso batzuk edo beste emango ditugu, bertiere gure ahalmena kontuan izanda.

Nire iritziz, gure erronka nagusiak bi izan behar dira: lehenengoa, Deustuko pertsona eta espazioen beharrak identifikatu eta hauen defentsan aritzea; bigarrena, egiten ditugun ekintza eta jarduerak indartu, Deustuko sektore eta adin desberdinetako jendea erakarri.

Zer behar da, zure ustez, Deustu komunitate gisa sendo mantentzeko eta aurrera egiteko?

Herrian egotea eta bizitza herrian egitea ezinbestekoa da. Zelan hurbilduko naiz merkataria edo ostalari batengana laguntza eskatzera edo harremana egitera bertan inoiz ez banago? Zelan ezagutuko ditut herriak dituen herriak dituen beharrak bertako jendearekin ez banaiz elkartzen? Hortik abiatuta eta, nola ez, aurretik aipatutako ekimenak sustatuz, bidea errazagoa da.

“Zelan hurbilduko naiz merkataria edo ostalari batengana laguntza eskatzera edo harremana egitera bertan inoiz ez banago?”



KIROLA

Deustuko Iharra Pala Txapelketa

Berrito ere martxan da Duetsuko Iharra pala txapelketa. Irailaren 20an, arratsaldeko 19:00etan Pala txapelketaren finala eta lore-eskaintza ospatuko dira. Palan jokatzeko zaletasuna dute deustuarrek, astean behin batzuk, ahal dutenean beste batzuk. Partidak bikoteka jokatu dira, 32 tantora, gomazko pilotarekin. Guztira, hiru fase izan ditu txapelketak: ligaxka, kanporaketa eta final handia. Duela 52 urte Guardia Zibilak Iharra izeneko deustuar gazte bat hil zuen Urdazubin eta geroztik, Deustuko frontolari Iharra izena jarri zion herriak, Euskal herriaren alde egindako lanaren oroimenez.

GENTRIFIKAZIOA

Coliving-ak kezka sortu du Deustualdean

Coliving-a Bilbora iritsiko dela eta, Ibairekolandan 62 apartamentu izango dituela iragarri izanak kezka piztu du gizartearen hainbat sektoretan. Marjal Taldeak mugikortasun profesionalerako aukera malgu gisa defendatzen duen arren, aditu batzuek ohartarazten dute eredu honek ondorio negatiboak ekar ditzakeela. Etxebizitzaren egungo egoerak, alokairu altuekin partekatutako etxebizitzetan ere, eta merkatuan eskaintza eskasarekin, pentsarazten du mota horretako bizioki hibridoak hazi egingo direla datozen urteetan.

OBRAK

Deustuko Erriberako futbol zelaia desagertzeaz

Deustuko Erriberako futbol zelaia desagertzeaz dago Bilboko udalak abian jarritako hiri-eraldaketa proiektuaren ondorioz. Auzoko kirol gune historiko hau eraisteko asmoa agertu da, erribera inguruaren berrurbanizazioa bultzatuz eta espazio berriak sortuz. Zelaia, urte luzez auzoko kirolari eta biztanleei aterpea eskaini diena, obra hauen ondorioz desagertuko da, eta bertako erabiltzaileek kezka eta desadostasuna adierazi dute. Hala ere, udalaren arabera, kirol jarduerak sustatzeko beste azpiegitura alternatibo batzuk sortzea aurreikusten da. Obrak datozen hilabeteetan hastea espero da.





KIROLA

Deustuko II. KM Bertikala Urriaren 26an ospatuko da.

Deustuko II. KM Bertikala lasterketa urriaren 26an ospatuko da. Proba herrikoi honek, kirol eta naturarekin lotura estua duen ekitaldia izanik, ibilbide bertikal gogorra eta zorrotza eskaintzen die parte-hartzaileei. Lasterkariak gogor lehiatuko dira maldan gora, distantzia motzean baina desnibel handiarekin. Antolatzaileek parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko neurri bereziak hartu dituzte, eta aldi berean, ingurune naturala errespetatzea sustatuko dute. Auzotar eta kirolzaileek gertutik jarraitu ahal izango dute ekitaldia, eta parte-hartzaileei animatzeko aukera izango dute.





Urtea: 1905

Txema Luzuriaga

Deustuko Anexioa

Ikasturte honetan, eta Deustu Bilborekin derrigorrez anexionatu zeneko mendeurrenarekin bat eginez, efeméride honi lotutako irudi eta testu batzuk ekarri ditut. Jakin badakigu 1755. Urtean eraiki zuela Deustuk bere lehen Udaletxea zelaian, Elizaren aurrean hain zuzen ere. Udaletxea 1887an eraitsi zuten, eta 1889an berriro udaletxe berria eraiki zuten. Udaletxe horretan nesken eta mutilen eskolak sortu ziren. Eraikin hau 1960an eraberritu zen eta 1937an suntsitu zen gerraren ondorioz.

Gogora dezagun Bilbok (bere alkate diktadorearekin, Moyua), 1924ko urriaren 29an, Begoña, Deustu eta Lutxanako zati bat anexionatu zituela. Bilboko portuko onra batzordearen irudi honetan (1905ean egina), Deustuko elizatea nolakoa zen ikus daiteke. Ezkerraldean, Asua ibaiaren eta Cabras mendiaren arteko eremuan, Lutxanako zatia dago, Deustu eta Begoñarekin batera anexionatua.

Elorrietan dagoen industria ere ikus dezakegu: Tubos Forjados, Etxe Handia eta Tellaetxe auzoa, Deustuko ibarrarekin kanala egiten duen lekuan. Mendi magalean, hilerria eta itsasadarraren eskuineko ertzean, Erriberako etxe guztiak ikus daitezke. Maparen eskuinaldean, Deustuko erdialdea frontoiarekin, Udaletxe eta elizarekin batera. Azkenik Unibertsitate literarioa.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

blb:

BILBOTARRON
ALDIZKARIA

BLB KOMUNIKAZIO KOOP. ELK.
Ramon y Cajal 42, behea
48014, Deustua
admnrz.blb@gmail.com | 944471042

YVES ROCHER
FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



**ATXURI
TABERNA**

Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

Iragar zaitez

Prest!-en


tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com



**Alonso
Pertsianak**
Plaza Celestino M^o del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

**Optica
Avenida**

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24



Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4



1924tik Deustun
**Eintoreria
La Flor**

Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze
jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua

**Probatu
herrizki.eus**

ANDROID APP
Google play

Apple App Store

ERROZ JARRABAZIA GOBIERNO VASCO BFA

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net

**Matxintxu
aek ■ euskaltea**

Matrikula zaitez! **aek**

Nailan
Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

**RONDOKO
HORTZ KLINIKA**

Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia

PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932

E.P.S. 425/97

Bitxidenda

**Sabin
Erlojudenda**

Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16


**PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS**

Deitu eta Ikusi!!

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23



Alokairuen gorakadaren eta pisu turistikoaren egoeraren inguruan, zein da zure iritzia?



Markel Uribarri

Egoera latza da eta garapen fase historiko garaikideari erantzuten dio. Errentismoa gailendu da eta oinarritzko eskubideak merkatu aktibo bilakatu. Prezioek gora egiten dute, eta etxebizitza eredu publiko eta alokairu eredu publiko ezin dugu gure auzoetan bizi.



Jon Uribarri

Auzoan bizitzea la ezinezkoa bihurtu da, pisu bat alokatzea 800€tan "ganga" bezala ikustera ohitzen hasi gara, nahiz eta jakin horrelako prezioek lagunekin bizitzea behartzen gaituela. Hori bai, nahiz eta auzokideentzako etxebizitza gutxiago egon, Gero eta VT gehiago ikusten ditugu, guretzako dauden alokairuen aukerak mugatuz.



Nerea Uribarri

Egoera gero eta larriagoa da. Auzoetan urtez egon gara prezioen igoera eta gazteok emantzipatzeko ditugun zailtasunak salatzen, baina ez da erantzunik jaso. Auzoak giris betetzen dizkigute gutxi batzuen polt-sikoak betetzeko, bertokook etxebizitza erosteko aukera gero eta urrunago ikusten dugun bitartean.



Lucia Uribarri

Etxebizitza turistikoak direla eta, gure auzoetan ia ez dago alokatzeko pisurik.. eta dauden gutxiak ekonomikoki eskuraezinak dira gazteontzat. Gurasoen etxean bizitzea tokatuko zaigu 40 urte bete arte!



Arrate Zazpi kaleak

Hiria geroz eta turistifikatua dago eta horrek ondorio larriak dakartzat gazteontzat etxebizitza bat alokatzeko orduan, bilbon dauden etxebizitza gehienak etxebizitza turistiko bihurtzen baitituzte eta gainontzeko pisuekin espekulazio handia dago, beraz garrantzitsua da udalak eta gobernuak lehenbailehen konponbide bat lortzea.



Imanol Ibarrekolanda

Gazte bezala, kezka handia sortzen didan arazo bezala ikusten dut etxebizitzaren alokairuaren prezioa. Nork daki noiz emantzipatuko garen. Pisu turistikoaren gorakadak gainera asko zailtzen du guztia.



harkua bete herna

>> HEZKUNTZA EZ FORMALA

ARNASGUNE UHARTEAK, UDALEKUAK

Testua: Antxon Agirre

Iraila, ikasturte berri baten hasiera. Umeek bainujantzia armairuko tiraderan gorde, arkatzak berrantolatuta eta motxila soinean sartuta dira ikasgeletan. Oporraldi baten ostean, soberan dakigu errutinaren murgiltzea ez dela erraza eta udaran izandako erritmo eta heziketa ohiturek asko baldintzatzen dutela itzulera.

Baina, bereziki, itzulera hori ume askorentzat konplexua da hizkuntza ohiturek talka egiten dutelako eskolakoekin. Nola ez dute arrotz sentituko euskara, Bilbo bezalako metropoli bateko umeek, eskola eremuarekin baino ez badute lotzen? Saskibaloia, igerilekua, futbola, musika klaseak, dantza tailerrak, youtuben kontsumitzen dituzten edukiak, ehuneko handi batean gaztelania hutsean dira.

Umeen aisialdiko erreferente erdaldunen uholde etengabe honen aurrean, zorionez, badira asnaragune portuak eta uda garaiko oporraldi luzeetan, euskararen uharte txikiak udalekuak izaten dira.

Hezkuntza ez-formala euskaratik ulertzea eta euskaraz garatzea hautu politikoa da egun Bilbon. Eta horren adibide dira gazte euskaltzaleek, bolondres gisa beraien auzoetan antolatzen dituzten aisialdi taldeak. Urteak 365 egun baditu, udalekuek hamaika eguneko bizipen desberdin bat eskaintzen dute, umeen memorietan zizelkatuta geratzen diren es-

perientzia horietakoak. Curriculumaren mugetatik at egotean, sormenerako espazio bihurtzen dira, lotsak galtzeko aukerak sortuz eta gorputzak ahaldunduz.

Egun bizi dugun eredu indibidualistatik urrun, aisialdi taldeek, izaera kolektiboa sustatzen dute. Inoiz elkartuko ez liratekeen pertsonen arteko harreman eta elkar-ezagutza sustatuz, auzokideen arteko harremanak sendotuz. Nagusienek txikienetatik, txikienek nagusietatik ikasiz, gozatuz, elkarbanatuz... Gainera, teknologiaren menpekotasun garai hauetan, umeak pantailetatik desintoxikatzeko tarteak ere badira topaleku hauek, hemen eta orain filosofiarekin bat eginez.

Txantxiku Aisialdi Taldean, euskal aisialdi alternatiboa ipinitzen dugu erdigunean, ikasturtean zehar ekintza desberdinak antolatuz. Euskal Herrian zehar asteburupasak antolatuz, Deustualdeko egitasmoetan parte hartuz eta gure ohitura propioak sortuz. Bihurrikeriak tarteko balio komunitarioetan oinarritzen da gure egitasmoa, euskararen arnasgune bilakatzeko ume askorentzat. Finean, aisialdia beste era batean bizitzeko aukera da, ikasteko eta transmitzeko beste bide bat. Kantak dioen bezala, "probatu ez duenak ez daki zer den hau", horregatik, familiei deitu nahi diegu, etxeko txikiek noizbait bizi dezaten halako esperientziaren bat.



.Deustuko Aisialdi Taldea.



 **DEUSTU Kendu ziguten herria**

Urriar Hektor Ortega eta Txema Luzuriagak osatu duten Deustuko (1925) historia garaikideari buruzko liburu ilustratua argitaratuko da.

2 zatik osatzen dute liburua:

lehenengoa argazkiek osatzen dute eta bigarren zatian, antzinako udal-letzeko dokumentuek urte horietaz esaten zutenarekin osatutako testuak berreskuratutakoak dituzte.

BAKARRA MUNDUAN!

HAU PITTU HAU

Hamar egun muntatze-lanetan egon eta gero, abuztuaren 17an Euskaldunon Konpartsako ki-deok harrotasun eta ilusio handiz eman genion Aste Nagusiari ongi etorria. Itziar Ituño pregoilariaren hitzek bereziki zeharkatu gintuzten, euskaldun berria izateaz harrotasuna erakusteaz gain, euskara hutsean egin daitekeela eta egiteko ardura dugula ondo erakutsi baitzuen. Larunbat gau hartan euriak ere ez zuen euskararenugarra itzali, ez eta hurrengo egunetan ere. Arau euskarafobikoei su ematen egon ginen bederatzi egunez, eta Bilbok behar duen Udal Ordenantzaren alde egin genuen (eta egiten jarraituko dugu).

Egunek aurrera egin zuten, eta asteartean lehenengo aldiz Igelen Txapelketa izan genuen Euskalgunean. Adin guztietako partaideak hurbildu ziren; helduenek arauak, ohiturak eta pasioa transmititu zieten gazteenei eta haien esker ona adierazi zituzten antolatzaileoi. Arratsaldean jaigiroa eten genuen une batez Manteroen aldeko elkarretaratzea egiteko gainerako konpartsakideekin batera, etorduan ez bagenekien ere, berriz elkartu beharko ginen igandean, elkartasuna adierazteko poliziaren

aldetik jasan zituzten erasoaren aurrean Ostegunak gure egun handia ekarri zuen, Aste Nagusiko Euskaraz Bizi Eguna. Aurtengo saritua Presoen Euskara Irakasle Taldea izan zen, presoen euskara ikasteko eskubidearen alde egiteagatik, esperteetan eskolak eskainiz zein kultura ekimenak aurrera eramanez. Eguneko Marianito musikatuaren erritmoa jarraituz esnatzen hasi ginen goizean eta txandariarik prestatu zuten menu gozoari esker, arratsaldeko elektrotxaragara indartsu heldu ginen. Azken hiru egunetan ere ez ginen geldirik egon. Ostiralean Euskara hamaika borroka batzeko gai dela aldarrikatu genuen dantzatzuz, larunbatean azken aldiz elkarrekin bazkaltzeko batu ginen eta igandean, malkoren bat tartean, elkarrekin agur esan genion Marijaiari.

Konpartseroentzat, hala ere, hori ez zen izan Aste Nagusiaren bukaera. Astelehen eta asteartean desmuntatze-lanetan egon ginen, neke-neke egin da eta abuztuko eguzkipean. Ezinezkoa zirudien, baina elkarlanez mekanotubo pisutsu guztiak kentzea lortu genuen. Horixe irakasten digu urtero Aste Nagusiak, elkarlanez dena lor daitekeela.

TRIKIMAILU

Hamaika hilabete ta piku, 51 aste, 356 egun, 8544 ordu, 512640 minutu eta artean bilera anitz... Aste Nagusiaz gozatzeko, 9 egun disfrutatzeke, Munduko jairik onenak dastatzeko. Bai, Munduko jairik onenak, Bilbotarrak garelako!

Urte osoan zehar lanean ibiltzen gara buru-belarri herrirako ekintzak prestatzen, bidezkoa eta solidarioa den gizarte baten alde apostua eginez. Bartzuen ustez 9 eguneko lana da, baina festa ikaragarri honek duen lana egun batzuk lehenago hasten da, txosna prestatzen eta muntatzen. Zenbat ingeniera eta arkitekta karrera gabeko! Baina 9 egunetan makina bat ekitaldi bikain antolatzeke ofizio eta afizio mila topatzen ditugu. Gainera adin guztietakoak: sukaldari hasi berriak zein landuak Areatzan bilduta, flanjale gazte eta gazte sentitzen direnak, herri kirolen jarraitzaileak... Guztionak eta

guztiontzat nahi ditugu gure jaiak. Horregatik goizez, arratsaldez eta gauez jai honek ez du etenik. Den-dena musutruk, Bilbotarron grina hori baita, elkarri laguntzea baina aldi berean elkarrekin disfrutatzea. Baten batek pentsa dezake ez gaudela burutik sano. Baina, probatu ez duenak ez daki zer den hau!

Horixe bera da gure apustua, jai herrikoiak bultzatzea, gune anitza, askea eta inolako erasorik gabekoa. Eta noski, gure ingurua hobetzeko helburu horren alde eginez, urtero lortutako diruaren zati bat haur, gazte eta nerabeekin lan egiten duten elkarteei helarazten diogu.

Gora Jai herrikoikiak! Gora Aste Nagusia!! Eta gora Marijaiak!!!

BILBOKO ASTE NAGUSIA, JAI HERRIKOIEN GILTZARRI!

Testua: Itxaso Sainz

Hilabete eskas igaro da Bilboko Aste Nagusia amaitu zenetik. Iraila bete-betean gaude; atzean gelditu da egun horietako jai giroa, berriro itzuli gara urteko zereginetara, errutinara... nork esango liguke duela gutxira arte txosnagunean geundela dantzan gure onena ematen garagardoa eskuan?

Urtero, tenperatua epeltzearekin batera, euskaldunoi odola berotzen zaigu; kaleko parrandaz gozatzeko grina iristen zaigu. Nolabait, gure gorputzak badaki jai herrikoiak datozela. Baina inoiz geure buruari galdetu diogu nola heldu garen jai eredu hau izatera? Horren erakusgarri onenatariko bat Bizkaiko jaien erregina dugu: Bilboko Aste Nagusia.

Ziur aski, noiz edo noiz botxokoa izan ez arren, Bilboko txosnagunera hurreratu gara trago bat hartzeko edota kontzertuetan ederto pasatzeko. Baina kontziente gara zer dagoen "betikotzat" jotzen ditugun atrezzo horien guztien atzean? Bilboko Aste Nagusia betidanik holakoa izan da? Bada, egin dezagun gure historian flashbacka!

Danoi ezaguna egingo zaigu garai bateko Bilboko kaleen kolore grisa, bizipoza edota euskal kultura legez debekatzen zuen Frankismoaren tristezia-eren legea... Egia da orduan jaiak bazirela. Halere, diktaduraren balioak oinarri, gizon-emakumeen estereotipo zaharkituak sustatzen zituzten ikuskizunak baino ez ziren eskaintzen; areago, herria ikusle hutsa zen.

Hortaz, herritarron ezinegonak bultzatuta, Bilbon erreferente zen irratsaio bateko langile bat egoera aldatzera ausartu zen kalejira baterako deia eginenez. Arrakasta egundokoa izan zen, agerian utzi baitzuen herritarron beharra nahiz gogoia "bene-tako" herritarrentzako jaiak sortzeko.

Handik aurrera, jaien eredia aldatzeko prozesuari ekin eta herriari galdetuta egin zitzaion proposamen baten eske. Guztira, 37 ideia jaso ziren eta zalantzak izan arren, Txomin Barullo elkartearen ideiak aurrera egin zuten. Proposamenean, jaien



indarra Zazpikaleetan kokatu ez ezik, ikerketa lan sakona ere egin zen antzinako jaien figura batzuk berreskuratzeko; besteak beste, txupinera edota "konpartsa" kontzeptua (antzinako inauterietan kopa zaharrak abesten zuen taldetxo). Eta, noski, egitasmoak herriaren parte hartzea sustatzen zuten. Beraz, jai batzordea hainbat auzo elkarteren laguntzaz eratu zenean, udaletxeak plana onartu eta aurrekontutxo bat eskaini zuten. Hori bai, lehenengo jaiak erloju kontran egin behar izan zituzten ekainean zeuden eta.

Denbora gutxi izan bazuten ere, Bilbo konpartsez jantzi eta are gehiago, kanta nahiz jaietarako musa parrandazalea sortu ere egin zioten. 1978ko abuztuan egundoko jaiak bizi zituen Bilbok, benetan hunkigarriak. Azkenean, herriak bazituen bere jaiak, merezi zituenak. Tamalez, hurrengo urteak ez ziren errazak izan. Orduko alkatearen saiakerak jaiak monopolizatzeke eta horren ondorioz urte batez bertan behera uzteak edota 1983ko uholdeek bidea oztopatu zuten. Dena den, eredu herrikoia baterako aldaketa erreala zen; eta gogoia inoiz baino indartsuago izanik, hasitako bideari jarraipena eman zitzaion. Izan ere, egun jaien balioek bere horretan diraute.

Hortaz, jai girora hurbiltzen garenean, ez ditzagun herrietako jaiak mozkortze hutsatzat jo. Mante ditzagun bizirik gizarte indibidualizatu honen baitan elkarrekin zein gure kabuz antolatzeke arnas-guneak!

harkua bete herba

>>NUTRIZIOA

DEUSTUKO KILOMETRO BERTIKALERAKO NUTRIZIO-GOMENDIOAK

Testua: Ainhoa Maiztegi

2024ko urriak 26an ospatuko den Deustuko kilometro bertilaka, lasterketa aparta da. Bere ibilbide motz (kilometro bat), leherkari eta 150 metrotako igoerarekin Deustualdeko eta inguruko herritarrak batuko ditu bigarren edizio honek. Erloju kontrakoa eta intentsitate altuko ezaugarriengaitik, aurreko egunetako baita egunean bertako eta ondorengo orduetan nutrizio egokia ziurtatzea beharrezkoa da proba honetan errendimendua optimizatze-ko. Portzierto, oraindik izena eman ez baldin baduzu, urriak 24rarte daukazu inskribatze-ko epea zabalik. Animatu eta parte hartu!

Errendimenduaren optimizazioak proban lortutako marka ez ezik, honakoa barnebiltzen du: sustrato energetikoen erabilpen interesgarriagoa, nekearen atzerapena, gaitasun kardiobaskular hobetzea, potentziaren hobekuntza, min muskularraren gutxitzea, nutrienteen reposizioa, masa muskularraren handipena, gihar eta artikulazioen indartzea, hidratazio egokia eta elektrolitoen oreka mantentzea, arranpa eta lesioen prebentzioa, entrenamendu plangintza pertsonalizatua, teknika optimoa burutzea, estresa maneiatzeko harrimintak edukitzea, eta arretaren hobekuntza izatea, besteak beste. Jarraian jasoko ditugu kronologiaren ikuspuntuik nutrizio aholkuak:

Karrera hasi baino 48 ordu arinago

Egun hauetako nutrizio helburuak: glukogeno deposituen maila altu mantentzea (igoera intentsoan energia eskuragarri izateko) eta hidratazioa egokia mantentzea dira. Bestetik,

kirol frogan eman ahal diren min muskularra gutxitzeko proteinen ekarpena otordu guztietan zehar emango da. Aldiz, froga ordua gerturatzen den heinean, digestio molestiak ekiditeko asmoz zuntz eta gantz ekarpena murrizturik ikusi beharko lirateke.

Karreraren aurretiko otordua

Deustuko kilometro bertikala goizeko 10etan izanda, gosaria 2-3 ordu arinago egin beharko genuke energia azkarra proportzionatzeko bai, baina aldi berean arazo gastrointestinalak ekiditeko. Hori lortzeko, otordu honek honako ezaugarriak izan beharko lituzke: xurgapen arineko karbohidratoetan aberatsa izan (ogi zuria, kornflakes, olo egosi, marmelada, azal gabeko fruta heldua, fruta konpota, ...), proteinen ekarpen xumea eduki (jogurta naturala, esneki gaingabetuak, arrautza egosia, ...), eta hidratazio egokia bermatzea.

Froga hasi baino 15-60' arinago

Gose izatekotan (lehia aurretiko nerbioek eragin dezakete) datilak, fruta lehorra, edota fruta-zukua hartu ahal dugu, beti kantitate txikietan eta urarekin lagunduta.

Gehigarriei dagokionez, beste edozein kirol edo kontextu klinikoko bezala, osagarriak iceberg puntan kokatzen dira. Beraz, errendimenduaren optimizazioan eragina duten aurretik aipatutako faktoreak oinarritzat hartu ez ezik, ez genituzke apenas onurak atzemango. Interesgarriak izan ahal direnen kasuan honakoak topa ahal ditugu: kafeina



harkua bete herba

(nekea atzera dezake, sistema nerbioso zentrallean duen eraginaren ondorioz), nitratoak-erremolatxa zukua (basodilatazioa faboratzen dute emaitzatat odol-fluxua eta muskuluen oxigenazioa hobetuz) eta kreatina mohidratoa (potentzia maximoa ondu eta periodo motz eta intentsioetan zehar esfortzua mantentzen lagun dezake). Bestalde, nahiz eta proba motz baten aurrean kokatu, hau hasi baino lehen, edari isotonikoen gehitzeak elektrolitoen oreka eta hidratazio zuzena mantendu ahalko lukete (2024ko ekaineko alean azaldu genizuen nola prestatu edari etxeko-edari isotonikoa).

Helmuga pasa eta gero


Frogari agur esanda, erabilitako energia berreskuratzea, eta osasun muskularra baita hidratazioa bermatzea ezinbestekoa izango da. Nutriente guztiek edukiko dute presentzia ondorengo otorduetan, arreta berezia antioxidat-

zaileei, karbohidratoei eta proteinei emanaz. Eta noski, segi dadila festa!

Besterik gabe, espero dut zuen aurpegiak urriaren 23an ikustea, elkarri animatzeko ta egunaz gozatzeko asmoz! Eta gogoratu: karrera egunean ez dugula ezer berririk frogatu behar ;)



Ainhoa Maiztegi

 @ainhoamaiztegi.nutricion



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean



ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



JON INTXAURRAGA

Irakaslea

ORDEZKOAREN ZUTABEA (OHARRA: ETXERAKO LANAK JASOKO DITUGU)

Ordezkoaren bizitza bere izaeraren araberakoa da. Lan egin nahi duenarentzat gogorra, lanean dagoen arren ez dagoelako inon lanean, eta lantokira ohitu orduko ordezkapena bukatu zaio eta. Alperxuagoa denarentzat, ordea, pagotxa da: ikastetxera joan, titularrak agindu duena betearazi, jaso, kobratu eta bye bye. Txarrena da, ziurrenik, Adam Brodyk Detachment pelikulan gorpuzten duen Henry Bathesi gertatutakoa. Alde batetik, umeez eredu bat izan dezaten sartu zen irakasle, baina, bestetik, harremana egin orduko hanka egiten du.

PREST! honetan idaztea egokitu zait titularrak huts egin duelako, beraz, bai, ordezkia naiz. Halere, ez dut inoren erdua izateko asmorik, ezta konpromisoari bertigorik ere (berak bai beldurra dit, antza). Hori bai, ez dakidanez datorren zenbakian bajaran jarraituko duen, eta zutabe honen izpituari eutsiz, gomendioren bat utziko dizuet urriko goiz, arratsalde, ilun edo gau euritsuak kulturaz bete ditzazuen, edo, beste barik, aukeratzen ez dezazuen hainbeste denbora gal (nori ez zaio gertatu?): Tatxersen azken diskoa (Ezpatei distira!), Itoizen edozein kanta (beti Itoiz!), Dumasen Hiru mosketeroak (barruko ume abenturazalea ez baita inoiz joan), Perfect Days pelikula (Movistarren azpitoluak euskaraz daude) eta arestian aipatutako Detachment.

Ohi legez, irakasleak etxerako lanak jasoko ditu datorren klasean.

Laster arte edo, eta muxu/ besarkada bana!

Doinua: Badira hiru aste



MAITE SARASOLA

Elorri bertso-eskolako kidea

Nahiz pasatu den uda garai bat
Ederra, ona, trankila.
Iraila iritsi zaigu goxoki
Ta kontu berrien bila
Kultur agendak Bilbon jarri du
Martxan ekintzen gurpila
Lana, kirola, etxeko gauzak
Ta egiteko plan pila.
Gustoko gauzez egin dezagun
Ordutegi biribila
Kurtso berria desio bezain
Oparo joan dadila!

Gustoko gauzak zein dira baina?
Ni batez seguro nago.
Bertso eskolan elkartzen gara
Kantuz ezin gustorago
Bapatean zein idatziz egin
Ohi dugu bikain zeharo.
Erroma eta doinu artean
Ze giro eta ze barbaro.
Beraz, zu ere etorri zaitetz
Ta ez itxaron gehiago.
Etorri gura duenarentat
Atea zabalik dago!



AURKITU ZURE
EUSKALTEGIA

EUSKARA NONAHI

MATRIKULATU ZAITEZ

EUSKALTEGIETAN!

Udalak finantzatutakoa

bilbaeuskaraz.bilbao.eus



Bilbao

@goradeustu



DEUSTU ~ BERRIZ

II. KM bertikala

2024 · 10 · 26

Izen ematea
Inscripción



Babesleak:



Ainhoa Maiztegi
Fekzioz eliza, bizirik herriak eta munduak



Laguntzaileak:



DEUSTU BIZIRIK

EUSKARARA HURBILTZEKO HARRERA IKASTAROA

LIMBA BASCA CURSURI PENTRU I MIGRANTI

CURSO DE EUSKARA PARA MIGRANTES

COURS D'EUSKARA POUR DES MIGRANTES

دورة في لغة ؤشكيرى للأجانب



EMAN IZENA! MATRICÚLATE!

LUNES Y MIÉRCOLES O MARTES Y JUEVES

ASTELEHEN ETA ASTEAZKENETAN EDO ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN

9:30-11:30 / 19:00-21:00

Telefona: 613171908

Helbide elektronikoa: berbaizuko@gmail.com

